

REGLAMENTO BIZKAIBIRA KADETE 2026



La BIZKAIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA, con domicilio en Bilbao (Bizkaia), C/ Martín Burúa Picaza 27, teléfono 944 415 049, e-mail [info @ febici.eus](mailto:info@febici.eus), organiza, de acuerdo con el Reglamento del Deporte Ciclista de la Unión Ciclista Internacional (UCI), la prueba por etapas con la denominación de “BIZKAIBIRA KADETE 2026”.

La prueba se celebrará en dos etapas en línea y una C.R.I., durante los días **28 al 30 de Agosto de 2026**.

Artículo 1º. Recorrido

La prueba discurrirá entre las poblaciones y con el kilometraje que a continuación se detalla:

Etapas 1 (28/08/2026): Gordexola-Gordexola - 60,2 km

Etapas 2 (29/08/2026): Karranza-Karranza - 53,6 km

Etapas 3 (30/08/2026) Busturia- Busturia (CRI) - 3,5 km

TOTAL: 117,3 km

Artículo 2º. Participación

La prueba está reservada a los equipos de corredores de categoría **KADETE** expresamente invitados por el organizador. Se deberán inscribir mediante la plataforma habilitada en la web www.febici.eus.

Los equipos no tendrán limitación a la hora de inscribir corredores. Para sacar coche de equipo en cada una de las etapas tendrá que tener un mínimo de 3 corredores.

Artículo 3º. Oficina Permanente

Control de inscripción y distribución de dorsales:

Día 28/08/2026 Horario: 14:45 - 15:45 h

Lugar: Gordexola

Reunión de Directores Deportivos: Día 28/08/2026 Hora: 16:00 h

Lugar: Gordexola

Artículo 4º. Reglamentación General aplicable

El presente Reglamento de la prueba es un complemento adicional a lo establecido en el Reglamento del Deporte Ciclista de la UCI y en los Reglamentos Técnicos de la Real Federación Española de Ciclismo (RFEC), en lo que respecta a las pruebas de *clase 2.15*.

En especial, la totalidad de los artículos del Capítulo II-Disposiciones Generales (Arts. 2.2.001 al 2.2.037) y del Capítulo VI – Pruebas por Etapas (Arts. 2.6.001 al 2.6.038), del Reglamento UCI.

Los corredores, Directores Deportivos y el personal auxiliar de los equipos participantes deben conocer el presente Reglamento de la prueba y se comprometen a aceptar íntegramente cuanto en él se especifica.

Esta prueba se celebrará en formato de “challenge”. Todo corredor que abandone o sea retirado podrá tomar parte en la siguiente etapa.

Un corredor podrá ganar una de las diferentes clasificaciones generales (general por tiempo, montaña y metas volantes) si termina las 3 etapas.

Artículo 5º. Clasificaciones

5.1. Clasificación General Individual por Tiempos

Se obtendrá mediante la suma de los tiempos invertidos en todas las etapas, por cada corredor, teniendo en cuenta las penalizaciones que les correspondan si las hubiera, siendo mejor clasificado el corredor que menos tiempo haya totalizado. En caso de empate entre dos o más corredores, se resolverá por las centésimas de segundo registradas en la etapa contra el reloj individual. En caso de nuevo empate, se recurrirá a la suma de puestos obtenidos en cada etapa y, en último caso, a la plaza obtenida en la última etapa disputada.

En caso de *ex aequo*, la distribución de puntos para el desempate eventual y premios, se realizará por igual entre los componentes del *ex aequo*.

5.2. Clasificación por Equipos en la etapa

Se obtendrá mediante la suma de los tres mejores tiempos individuales de cada equipo, siendo mejor clasificado el equipo que menos tiempo haya totalizado. En caso de igualdad los equipos desempatarán por la suma de los puestos obtenidos por sus tres primeros corredores en la etapa, si continúa la igualdad los equipos desempatarán por la clasificación de su mejor corredor en la clasificación de la etapa.

5.3. Clasificación General por Equipos

Se obtendrá mediante la suma de los tres mejores tiempos individuales de cada equipo en todas las etapas disputadas, siendo mejor clasificado el que haya totalizado menos tiempo. En caso de empate, se aplicarán los siguientes criterios hasta que exista desempate:

1. Número de primeros puestos en la clasificación diaria por equipos;
2. Número de segundos puestos en la clasificación diaria por equipos, etc.

Si continúa la igualdad se desempatará a los equipos por la clasificación de su mejor corredor en la Clasificación General Individual por Tiempos.

Será eliminado de la Clasificación General por Equipos el que quede reducido a menos de tres corredores.

5.4. Clasificación General Individual de Metas Volantes

Se obtendrá mediante la suma de los puntos conseguidos por cada corredor en los lugares señalados, siendo mejor clasificado el que más puntos haya obtenido. En caso de empate, se resolverá a favor del que mejores puestos haya conseguido. De persistir el empate, se resolverá a favor del mejor clasificado en la General Individual por Tiempos.

PUNTUACIÓN: 1º 3 puntos, 2º 2 puntos, 3º 1 punto.

5.5. Clasificación General Individual de la Montaña

Se obtendrá mediante la suma de los puntos obtenidos por cada corredor en los altos puntuables, siendo mejor clasificado el que más puntos haya conseguido. En caso de empate, se resolverá a favor del que haya conseguido más primeros puestos en los altos de más alta categoría. Si el empate continúa, se tendrá en cuenta el mayor número de primeros puestos en los altos de la categoría inmediatamente inferior, y así sucesivamente. De persistir el empate, se resolverá a favor del mejor clasificado en la General Individual por Tiempos.

PUNTUACIÓN:

Altos de 1ª categoría: 1º 9 puntos, 2º 6 puntos, 3º 3 puntos

Altos de 2ª categoría: 1º 6 puntos, 2º 4 puntos, 3º 2 puntos

Altos de 3ª categoría: 1º 3 puntos, 2º 2 puntos, 3º 1 punto

5.6 Clasificación General Individual de 1er. Bizkaino

Optarán a ella todos aquellos corredores con licencia expedida por la Federación Bizkaina de Ciclismo, siendo primer clasificado el que mejor puesto haya obtenido en la Clasificación General Individual por Tiempos.

5.7. Clasificación General Individual de Cadete de 1er. Año

Optarán a ella todos aquellos corredores nacidos en el año de **2011**, siendo primer clasificado el que mejor puesto haya obtenido en la Clasificación General Individual por Tiempos.

Artículo 6º. Clasificaciones

La Organización facilitará las siguientes clasificaciones:

Líder de la Clasificación General Individual por Tiempos

Líder de la Clasificación General de la Montaña

Líder de la Clasificación General de Metas Volantes

Líder de la Clasificación General Individual de Cadete de 1er. Año

Líder de la Clasificación General Individual de 1er. Bizkaino

Artículo 7º. Avituallamiento

Los establecidos en cada etapa, según el Jurado Técnico.

Se podrá efectuar desde los vehículos de equipo, desde los coches neutros o pie a tierra. El avituallamiento pie a tierra se deberá realizar en las zonas preestablecidas por parte del personal oficial acreditado del equipo y con exclusión de cualquier otra persona.

Artículo 8º. Pinganillo

El uso del pinganillo estará permitido.

Artículo 9º. Control antidopaje

En todas las etapas fijadas por la Agencia Vasca Antidopaje, los corredores se someterán al Control Antidopaje de acuerdo a las normas establecidas en la Ley 12/2012, de 21 de Junio, contra el Dopaje en el Deporte del Gobierno Vasco.

En cada etapa se instalará cerca de la llegada una unidad móvil, o se establecerá una zona de control, en lugar previamente anunciado, para efectuar dicho servicio.

Artículo 10º. Penalizaciones y sanciones

En caso de sanción se aplicará el anexo 1 del cuadro de sanciones de la KOPA BIZKAIA 2026.

Artículo 11º. Radio Vuelta

Las informaciones de carrera son emitidas por la Organización sobre frecuencia 151.700 MHz.

Artículo 12. Coches neutros

La organización pondrá a disposición de los ciclistas 2 coches neutros equipados con ruedas y bicicletas de repuesto.

Artículo 13º. Zona de sprint

Se establece en 3.000 metros, a excepción de la etapa C.R.I. (Busturia-Busturia). Todo corredor que tenga un accidente reconocido se le concederá el tiempo del grupo donde circulaba.

Artículo 14º. Etapa contrarreloj individual

Será obligatoria la utilización de la bicicleta convencional sin acoples en el manillar (no están permitidas las cabras).

El orden de salida establecido será el orden inverso a la clasificación general. Para los corredores no clasificados será mediante sorteo. El intervalo de tiempo en la salida entre corredores será de ½ minuto (**30 segundos**), siendo igual para todos ellos.

Las demás cuestiones no recogidas en este reglamento sobre la etapa C.R.I. serán resueltas en base a la aplicación del Reglamento de la UCI en materia de pruebas contrarreloj individual.

Artículo 15º. Abandonos

El corredor que por cualquier causa o motivo se viera obligado a abandonar en una de las etapas, podrá tomar la salida en la(s) etapa(s) siguiente(s) optando al trofeo y al premio de la Clasificación Individual por Tiempos de dicha(s) etapa(s). Así mismo, su

(s) tiempo(s) será(n) contabilizado(s) para la Clasificación por Equipos de esa(s) etapa(s) y la Clasificación General por Equipos.

Por el contrario, no optará a ninguna Clasificación General Individual, a saber, por Tiempos, Metas Volantes, Montaña, Cadete de 1er. Año y 1er. Bizkaino

Artículo 16º. Baremo de premios.

El montante de premios y su distribución queda fijado en Hoja Anexa al presente Reglamento.

Artículo 17º. Ceremonias protocolarias.

El podium de cada etapa derá el siguiente:

Vencedor de etapa, 2º y 3º clasificados de la etapa.

Líder de la Clasificación General Individual por Tiempos

Líder de la Clasificación General Individual de la Montaña

Líder de la Clasificación General Individual de Metas Volantes

Líder de la Clasificación General Individual de Cadete de 1er. año

Líder de la Clasificación General de 1er. Bizkaino

Al finalizar la **ÚLTIMA ETAPA** deberán acudir al podio:

Vencedor de la etapa, 2º y 3º clasificados de la etapa

1º, 2º y 3º de la Clasificación General Individual por Tiempos

Vencedor final de la Clasificación General Individual de la Montaña

Vencedor final de la Clasificación General Individual de Metas Volantes

Vencedor final de la Clasificación General Individual de Junior de 1er. Año

Vencedor final de la Clasificación General de 1er. Bizkaino

Director y corredores del equipo vencedor de la Clasificación General por Equipos Final

Artículo final. Casos particulares

Todos los casos no previstos en el presente Reglamento serán resueltos de acuerdo con el Reglamento de la UCI y, en su defecto, por los Reglamentos de la RFEC.

Salvo disposición contraria, toda decisión a tomar durante el curso de la prueba sobre el desarrollo de la carrera es de competencia exclusiva del Colegio de Comisarios. El Colegio de Comisarios deberá ajustarse a los reglamentos aplicables y, en la medida de lo posible, consultarlo con la Dirección de Organización.

Los problemas de organización puramente materiales serán resueltos por la Dirección de Organización de la prueba con respecto a todos los reglamentos aplicables y después de consultar con el Colegio de Comisarios.

Texto revisado el 20 de agosto de 2026.

2026KO KADETEEN BIZKAIBIRAREN ARAUDIA

BIZKAIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAK, Bilbon (Bizkaia) egoitza duenak, Martin Barua Pikaza kalea 27; telefonoa 944 415 049; helbide elektronikoa: info@febici.eus, Nazioarteko Txirrindularitza Batasunaren (UCI) Txirrindularitza Kirolaren Araudiaren arabera, “2026ko KADETEEN BIZKAIBIRA” izeneko etapetako proba antolatzen du.

Bi etapa lineal eta banakako erlojupeko batean arituko da proba, **2026ko abuztuaren 28tik 30era bitartean.**

1. Artikulua. Ibilbidea

Proba honako herrietan egingo da, jarraian zehazten den kilometro kopuruarekin.

Etapla 1 (2026/08/28): Gordexola-Gordexola – 60,2 km

Etapla 2 (2026/08/29): Karranza-Karranza 53,6 km

Etapla 3 (2026/08/30) : Busturia-Busturia – 3,5km

GUZTIRA: 117,3km

2. Artikulua. Parte – hartzea

Lasterketa **KADETE** mialako txirrindulari-taldeentzat gordeta dago, antolatzaileek berariaz gonbidatuta. Izen-ematea www.febici.eus webgunean egin beharko dute.

Taldeek ez dute epe mugarik izango txirrindularien izena emateko. Etapa bakoitzean taldeko autoa atera ahal izateko, gutxienez 3 txirrindulari izan beharko dituzte.

3. Artikulua. Bulego iraunkorra

Izen-emateen kontrola eta dortsalen banaketa:

Eguna 2026/08/28

Ordua: 14.45 – 15.45

Lekua: Gordexola

Kirol Zuzendarien bilera:

Eguna 2026/08/28.

Ordua: 16.00

Lekua: Gordexola

4. Artikulua. Ezarri beharreko Araudi Orokorra

Lasterketaren Araudi hau UCIren Txirrindularitza Kirolaren Araudian eta Espainiako Txirrindularitza Federazio Errealaren (RFEC) Araudi Teknikoetan ezarritakoaren gehigarria da, 2.15 klaseko frogiei dagokienez.

Bereziki, UCIren Araudiko II. Kapituluko – Xedapen Orokorrak, 2.2.001 – 2.2.037 art.- eta VI. Kapituluko – Etapetako Probak, 2.6.001 – 2.2.037) artikulu guztiak.

Txirrindulariek, Kirol Zuzendariak eta parte hartzen duten taldeetako langile laguntzaileek probaren Araudi hau ezagutu behar dute, eta bertan zehaztutako guztia osorik onartzeko konpromisua hartzen dute.

Proba hau “challenge” formatuan egingo da. Etapa bat bertan behera uzten duen edo erretiratzen de txirrindulari orok hurrengo etapan parte hartu ahal izango du.

Txirrindulari batek sailkapen orokorretako bat irabazi ahal izango du (denboraren arabera sailkapen orokorra, mendikoa eta tarteko helmuga), 3 etapak amaitzen baditu.

5. Artikulua. Sailkapenak

5.1. Denboraren arabera Banakako Sailkapen Orokorra

Txirrindulari bakoitzak etapa guztietan egindako denboren baturaren bidez lortuko da, egon litezkeen zigorrak kontuan hartuta; denbora gutxien metatzen duen txirrindularia izango da lehen sailkatua. Bi txirrindulari edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, bakarkako erlojupeko etapan erregistratutako segundo-ehunekoen bidez ebartziko da. Berrito ere berdinketa egonez gero, etapa bakoitzean lortutako postuen baturara joko da, eta, azkenik, jokaturako azken etapan lortutako psotura.

Ex aequo gertatuz gero, berdinketa hausteko puntuen eta sarien banaketa berdina-berdina egingo da ex aequoan dauden kideen artean.

5.2. Etapako Taldekako Sailkapena

Talde bakoitzeko banakako hiru denbora onenen baturaren bidez lortuko da, eta denbora gutxien gehitzen duen taldea izango da lehen sailkatua. Berdinketa egongo balitz, taldeek etapan haien lehen hiru txirrindulariek lortutako postuen baturaren bidez hautsiko dute berdinketa. Hala ere, berdinketak iraungo balu, taldeek etapa horretako sailkapenean haien txirrindulari onenak lortutako postuaren arabera ebatziko dute.

5.3. Taldekako Sailkapen Orokorra

Talde bakoitzeko banakako hiru denbora onenak batuz lortuko da, jokaturako etapa guztietan denbora gutxien gehitzen duena izango da lehen sailkatua. Berdinketa egongo balitz, honako irizpide hauek ezarriko dira:

1. Eguneroko taldekako sailkapeneko lehen postuen kopurua;
2. Eguneroko taldekako sailkapeneko bigarren postuen kopurua, etab.

Berdinketak jarraitzen badu, Denboren arabera Banakako Sailkapen Orokorrean haien txirrindulari onenak lortutako postuaren arabera hautsiko da taldeen arteko berdinketa.

Taldekako Sailkapen Orokorretik kanporatua iznago da hiru txirrindulari baino gutxiagorekin geratzen den taldea.

5.4. Tarteko Helmugen Banakako Sailkapen Orokorra

Txirrindulari bakoitzak adierazitako lekuetan lortutako puntuen baturaren bidez lortuko da, eta puntu gehien lortu dituen izango da lehen sailkatua. Berdinketa egonez gero, postu onenak lortu dituenaren alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, Denboraren arabera Banakako Sailkapen Orokorrean hobeto sailkatuta dagoenaren alde ebatziko da.

PUNTUAKETA: 1.ak 3 puntu, 2.ak 2 puntu, 3.ak 1 puntu.

5.5. Mendiko Banakako Sailkapen Orokorra

Txirrindulari bakoitzak mendate puntuagarrietan lortutako puntuen baturaren bidez lortuko da, eta puntu gehien lortu dituen izango da lehen sailkatua. Berdinketa egonez gero, maila altueneko mendateetan lehen postu gehien lortu dituenaren alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, berehala beherago dagoen kategoriako mendateetan lortutako lehen postu kopururik handiena hartuko da kontuan, eta horrela hurrenez hurren. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, Denboren arabera Banakako Sailkapen Orokorrean hobeto sailkatuta dagoenaren alde ebatziko da.

PUNTUAKETA:

1. Mailako mendateak: 1.ak 9 puntu, 2.ak 6 puntu, 3.ak 3 puntu
2. Mailako mendateak: 1.ak 6 puntu, 2.ak 4 puntu, 3.ak 2 puntu
3. Mailako mendateak: 1.ak 3 puntu, 2.ak 2 puntu, 3.ak 1 puntu

5.6. Lehen Bizkaitarraren Banakako Sailkapen Orokorra

Bizkaiko Txirrindularitza Federazioak jaulkitako lizentzia duten txirrindulari guztiek hartu ahal izango dute parte bertan, eta lehen sailkatua Denboraren Arabera Banakako Sailkapen Orokorrean posturik onena lortu duena izango da.

5.7. Lehenengo Urteko Kadeteen Banakako Sailkapen Orokorra

2011. urtean jaiotako txirrindulari guztiek hartu ahal izango dute parte bertan, eta Denboraren Araberako Banakako Sailkapen Orokorrean posturik onena lortu duena izango da lehen sailkatua.

6. Artikulua. Sailkapenak

Antolakuntzak ondorengo sailkapenak eskainiko ditu:

- Denboraren Araberako Banakako Sailkapen Orokorreko Liderra.
- Mendiko Sailkapen Orokorreko Liderra.
- Tarteko Helmugen Sailkapen Orokorreko Liderra.
- 1. Urteko Kadeteen Banakako Sailkapen Orokorreko Liderra.
- Lehen Bizkaitarraren Banakako Sailkapen Orokorreko Liderra.

7. Artikulua. Hornidura

Eta bakoitzean ezarritakoak, Epaimahai Teknikoaren arabera.

Taldeko ibilgailuetatik, auto neutroetatik edo oinez egin ahal izango da. Oinezko hornidura aldeztatik ezarritako guneetan egin beharko du taldeko langile ofizial akreditatuak, eta beste edonori debekatuta egongo zaio.

8. Artikulua. Pinganilloa

Pinganilloaren erabilera baimenduta egongo da.

9. Artikulua. Doping-aren aurkako kontrola

Dopingaren Aurkako Euskal Agentziak zehaztutako etapa guztietan, txirrindulariei Dopingaren Aurkako Kontrola egingo zaie, Eusko Jaurlaritzaren Kirolaren Dopingaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legean ezarritako arauen arabera.

Eta bakoitzean, helmugatik gertu unitate mugikor bat instalatuko da, edo kontrol-gune bat ezarriko da, aldeztatik iragarritako lekuan, zerbitzu hori emateko.

10. Artikulua. Zigorak eta isunak

Zigorrik balego, 2026ko BIZKAIA KOPAKO zehapen-taularen 1. eranskina aplikatuko da.

11. Artikulua. Itzuliaren Irratia

Antolakuntzak lasterketari buruzko informazioak 151.700 MHz frekuentzian igorriko ditu.

12. Artikulua. Auto neutroak

Antolakuntzak txirrindularien esku bi auto neutro jarriko ditu, ordezeko gurpil eta bizikletez hornituta.

13. Artikulua. Esprint-gunea

3.000 metrotan ezartzen da, C.R.I. etapan izan ezik (Busturia-Busturia). Aitortutako istripua duen edozein korrikalariri, istripua gertatzean zihoan taldearen denbora emango zaio.

14. Artikulua. Banakako erlojupeko etapa.

Derrigorrezkoa izango da ohiko bizikleta erabiltzea, eskulekuan akoplerik gabe (ez daude baimenduta 'ahuntzak').

Irteera-ordena sailkapen orokorraren alderantzizkoa izango da. Sailkatu gabeko txirrindularientzat, zozketa bidez egingo da. Txirrindularien arteko irteera-tartea minutu erdikoa (**30 segundo**) izango da, eta guztientzat berdina izango da.

Erlojupeko etapari buruz araudi honetan jasotzen ez diren gainerako gaiak, UCIren Araudia aplikatuz ebatziko dira.

15. Artikulua. Abandonoak.

Edozein arrazoigatik etaparen bat utzi behar izan duen txirrindulariak hurrengo etapan (etapetan) irteera hartu ahal izango du, eta etapa horretako (horietako) Denboraren arabera Banakako Sailkapeneko garaikurra eta saria lortzeko aukera izango du. Era berean, bere denbora(k) etapa horretako (horietako) Taldekako Sailkapenerako eta Taldekako Sailkapen Orokorrerako zenbatuko da (dira).

Aitzitik, ez du inolako Banakako Sailkapen Orokorretan sartzeko aukerarik izango; hau da, ez Denboren arabera, ez Tarteko Helmugen, ez Mendiko, ez 1. Urteko Kadetearen, ezta Lehen Bizkaitarraren sailkapenean ere.

16. Artikulua. Sarien baremoa.

Sarien zenbatekoa eta banaketa Araudi honen Eranskin Orrian ezarrita daude.

17. Artikulua. Protokolo-zeremoniak

Eta bakoitzeko podiuma honako hau izango da:

- Etaparen irabazlea, eta etapako 2. eta 3. sailkatuak
- Denboraren arabera Banakako Sailkapen Orokorreko Liderra
- Mendiko Banakako Sailkapen Orokorreko Liderra
- Tarteko Helmugen Banakako Sailkapen Orokorreko Liderra
- Lehenengo Urteko Kadeteen Banakako Sailkapen Orokorreko Liderra
- Lehen Bizkaitarraren Sailkapen Orokorreko Liderra

AZKEN ETAPA amaitzean, honako hauek igo beharko dute podiumera:

- Etaparen irabazlea, eta etapako 2. eta 3. sailkatuak
- Denboraren arabera Banakako Sailkapen Orokorreko 1., 2. eta 3. sailkatuak
- Mendiko Banakako Sailkapen Orokorreko azken irabazlea
- Tarteko Helmugen Banakako Sailkapen Orokorreko azken irabazlea
- Lehenengo Urteko Kadeteen Banakako Sailkapen Orokorreko azken irabazlea
- Lehen Bizkaitarraren Sailkapen Orokorreko azken irabazlea
- Amaierako Taldekako Sailkapen Orokorra irabazi duen taldeko zuzendaria eta txirrindulariak

18. Azken artikulua. Kasu bereziak

Araudi honetan aurreikusi gabeko kasu guztiak UCIren Araudiaren arabera ebatziko dira, eta horren ezean, RFECaren Araudien bidez.

Kontrako xedapenik ez badago, proban zehar lasterketaren garapenari buruz hartu beharreko erabaki guztiak Komisarioen Elkargoaren eskumen eskusibokoak dira. Komisarioen Elkargoa, aplikatu beharreko araudietara egokitu beharko da eta, ahal den neurrian, Antolakuntzako Zuzendaritzarekin kontsultatu beharko du.

Egitura hutseko antolakuntza-arazoak probako Antolakuntzako Zuzendaritzak ebatziko ditu, aplikagarriak diren araudi guztiak errespetatuz eta Komisarioen Elkargoari kontsulta egin ondoren.

2026ko abuztuaren 20an berrikusitako testua.